



UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEA

20/2021 LEGETIK ERATORRITAKO HEZITZAILE PLAZA JABETZAN BETETZEKO LEHENENGO PROBA "A" eta "B" ZATIEN INGURUKO JAKINARAZPENA

Deialdi honetan parte hartzeko eskaera egin dutenei hau jakinarazten zaie:

ARIKETA EGIN AURRETIK

1. Oposizioaldiko lehenengo proba A zatia (teorikoa) 2024ko apirilaren 29an izango da goizeko 9:00tan, Sindikatu Zaharreko areto txikian (Enparan kalea, 1 – 20730 Azpeitia).
2. Oposizioaldiko lehenengo proba B zatia (teorikoa-praktikoa) 2024ko apirilaren 29an izango da goizeko 10:45etan, Sindikatu Zaharreko areto txikian (Enparan kalea, 1 – 20730 Azpeitia).
3. Ateak 8:45ean irekiko dira eta 8:55ean itxi.
4. Izangaiek NANA, pasaportea edo gidabaimena, eta boligrafo beltz edo urdina (errotuladorea ez dena) eraman behar dute ariketara eta telefono mugikorra itzalita (ez isilik, ez hegaldi moduan).

ARIKETA EGIN BITARTEAN

1. Dagokion gelara sartu ondoren, izangaia ezin izango dira komunera joan.
2. Telefono mugikorrak eta bestelako gailu elektronikoak itzalita eduki behar dira (ez isilik, ez hegaldi moduan), gelan sartzen denetik ariketa amaitu eta gelatik irten arte.
3. Ezin da eraman erloju adimendunik.



4. Hautaketa prozesutik kanpo geldituko dira ariketak irauten duen bitartean erabiltzeko moduan dagoen sakelako telefonoren bat edo beste edozein gailu elektronikoko daramatzaten izangaia, interneterako edo beste gailu batzuetarako konexioa duten gailu elektronikoak daramatzatenak.
5. Ezin izango da belarritako tapoirik erabili, eta belarriak agerian eduki behar dira.
6. Gelan erabateko isiltasuna egongo da. Gainerako izangaiekiko jokabide desegoki edo gogaikarria izateak eraikinetik kanporatzea eta hautapen prozesutik baztertzea ekarriko du.
7. Izangaiek mahai azpian utzi beharko dituzte gauza pertsonalak.
8. Ariketak irauten duen bitartean, izangaiek mahai gainean honako hauek soilik eduki behar dituzte: jarraibide orria azterketarekin, gutun-azal handi bat erantzun orria(k) gordetzeko, gutun-azal txiki bat datu pertsonalak jartzeko orritxo gordetzeko, boligrafo urdin edo beltza eta NANA, une oro ikusteko moduko leku batean egon behar duena.
9. Zalantzarik izanez gero, izangaiek eskua altxatu eta zaindari baten laguntza eskatu behar dute.
10. Zaindariaren eta epaimahai kalifikatzailearen jarraibideak bete behar dituzte uneoro izangaiek. Hala egin ezean, eraikinetik kanporatu eta hautaketa prozesutik kanpo geratu daitezke.
11. Bertaratze ziurtagiria behar duten izangaiek, azterketa amaitzean eskatu beharko dute.

Azpeitian, 2024ko apirilaren 19an
Epaimahaiko idazkariak